

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI TILOS 7 PASA

Atzeratutako partidua, gaur

Eguraldi txarra dela-eta atzeratu egin dira Tilos 7 Pasa txapelketako partidu batzuk, eta horregatik, gaur ere jardunaldia izango da Tilosetan. Arratsaldeko 18:00etan hasita, lau partidu izango dira, guztiak 2. mailakoak: Josu-Alex/Ansa-Aroze-na; Pagola-Pichel/Garmendia-Elosegi; Arregi-Urreaga/Irazus-tabarrena-Loitegi; eta Salegi-Juarez/Iraola-Karim. ||

■ HERNANI-ASTIGARRAGA HERRIARTEKO TXAPALKETA

Finalerdien bila gaur, Hernani eta Astigarraga

Pasea ziurtatu nahi dute Hernaniko palistek, etxean, joaneakoan Andoaini 2-1 irabazi ondoren. Eskuz, ondo hasi nahi dituzte final laurdenak: Txomiñenen Astigarragak, eta Azpeitian Hernanik.

HERRIARTEKO Txapelketan murgilduta daude Hernani eta Astigarraga, eta finalerdietarako txartela dute orain helburu, bi herriek. Aurrera egiteko aukera izango dute gaurko final laurdenetako partiduekin.

Helburu hori gertuago dute Hernaniko pala taldekoek, final laurdenetako joaneko partidua dagoeneko jokatu baitute. Bertan, 2-1 irabazi zion Andoaini, beraz, bueltakoa ere erraztu egingo dio horrek. Etxean jokatu dute gainera, 20:00etan, frontoian.

Azpeitia bisitatuko dute, ordea, eskuzko taldeek. Gaur gaueko 22:00etan jokatu dute, bertakoen kontra. Joan nahi duenarentzat, autobusa aterako da 20:30etan, Atsegindegitik (8 euro).

Astigarrarek, aldiz, eskuz bakarrik lortu dute final laurdenetan egotea. Etxean jokatu dute gaur Zestoaren kontra, 19:15etan, Txomiñenean. ||



Azpeitian jokatu dute gaur hernanarrek, final laurdenetako joaneko partidua.

■ HERNANI TXISTULARIAK

Gradu amaierako kontzertua gaur, Oskar Ovejerok

Hernani Musika Eskolaren eta Musikene Goi Maila zentroaren elkarlanari esker, kontzertu berezia eskainiko dute gaur hainbat musikariek. Arratsaldeko 19:30etan izango da, udaletxean.

KONTZERTU berezia izango da gaur udaletxeko areto nagusian. Aurreko urteetan bezalaxe, Hernani Musika Eskolaren eta Musikene Goi Mailako zentroko elkarlanari esker, gradu amaierako kontzertua eskainiko du Oskar Ovejero (Bilbo, 1997) txistulariak. Arra-

tsaldeko 19:30etan hasita izango da, udaletxeko areto nagusian.

Herriko txistulari bat, harekin

Gradu amaierako kontzertua denez, Ovejero izango da protagonista nagusia, eta kontzer-

tua osorik eskainiko duena. Dena den, bakarlarik gisa aritzeaz aparte, laguntzaileak ere izango ditu, Musikeneko ikasleak, haietako batzuk. Akordeoiarekin lagunduko diote, baita beste txistulari batzuekin ere. Tartean izango da hernaniar bat: Haritz Ezeiza.

Kontzertua igandean, hernaniarrek

Txistu doinuek jarraipena izango dute asteburuan. Hain justu, udaberriko kontzertua eskainiko dute etzi Leokadisti Txistu Taldeko kideek. Udaletxeko arkupeetan izango da, eguerdiko 12:30etan hasita. ||

■ HERNANI ITURFEST

Aurreneko urtea ospatzeko, festa

Urtebete egin du Iturola Elkarlan Sorguneak, eta hori ospatzeko, festa egingo dute gaur, Gabriel Zelaian. Goizeko 10:00etan izango da harrera, eta iluntzera arte luzatuko da festa: bazkaria, ate irekiak, umeentzako jolasak... eta bukatzeko The Indezents eta DJ Txino izango dira, 20:00etan. ||

■ ASTIGARRAGA MUSIKA

Gitarra, gaur

Norberto Almandos Musika Eskolak antolatuta, gitarra klasiko entzunaldiak izango dira gaur. 19:00etan gazteen txanda izango da, eta 20:00etan, aldiz, helduena. ||

■ HERNANI MUSIKA

Helduen kontzertua, gaur

Kontzertua eskainiko du gaur Hernani Musika Eskola publikoko Portaletxoko helduen ganbara taldeak. 18:30etan izango da, Milagrosan. ||

■ HERNANI PRESOK

Kontzentrazioa, Plazan

Kontzentrazioa egingo dute gaur presoen senide eta lagunek Plazan, 20:00etan. ||



FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

Hernani ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zerbitzu partikularrak eta seguru etsoskin
• Beheak
• Errazketak
• Lekuak
• Eskolak, koruak...

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25 HERNANI

943 557 509

ISABEL

Janari denda

COVIRAN

Tomas Alba 11,
Astigarraga
943 55 23 67

Orain esku berrietan

TXEMA TABERNA

ostiralero
19:00etatik aurrera

PINTXO POTEA

Izpizua kalea, 21. Hernani
943 55 36 34

GAUR Eguraldiak uda ixura hartuko du gaur. Zeruak oskarbiari eutsiko dio eta eguzkitsu egongo da. Hori esker, tenperatura altuak izango dituzte, 30°ra arte igo daiteke.
Min.10° / Max.23°

BIHAR Udarako giroa izango da bihar, bete-betean. Zeruak oskarbi egongo da, nahiz eta aratsaldean goi-hodei fin batzuk agertu. Hego ukituko haizea ibiliko da, eta tenperaturan nabaria izango da.
Min.13° / Max.28°



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **+** Egunez: **Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI UDALA

«Gardentasun falta» salatu du Udalak «sufre dioxidoaren isurketaren auzian»

Astelehen goizaldean izan ziren isurketen aurrean, azalpen eske jo du Udalak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailera. Hemendik aurrera, egoeraren jarraipena egiten jarraituko duela adierazi du Udalak.

ASTELEHENEAN Hernanin sufre dioxido kopuru erabat ezohikoak eta kezkarriak antzeman zirela salatu zuen Eguzki talde ekologistak. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin jarri zen harremanetan Udala «informazioa eskatzeko»; izan ere, Eusko Jaurlaritzak neurgailu bat dauka herriko anbulategian eta horrek, airera isurtzen diren sustantzia batzuk neurtzen ditu.

Horren arabera, Udalak azaldu duenez, «ohiko isurketak metro kuboko 5 mikrograma ez dira iristen, eta hori legeak onartzen duen mailaren barruan dago». Astelehen goizealdean, ordea, datuak bestelakoak ziren: «1.339 mikrograma markatzen zuen Jaurlaritzaren neurgailuak (webgunean ematen ditu estazio guztien datuak)».

Jaurlaritzaren esanetan, «aparagailua hondatuta dago eta neurketak ez dira errealak»

Neurgailua, «hondatuta»

Datu horien azalpena eskatu zion Udalak Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari. Haren esanetan, «aparagailua hondatuta dago eta neurketak ez dira errealak». Horrez gain, esan dute «isurketak legezko maila gaintzen duenean abisatzen duen beste gailuak ere, ez duela funtzionatu». Hori horrela, «bi aparagailuak konpontzen ari direla» esan diote Udalari.

«Udalak egoeraren jarraipena egingo du»

Egoera honen aurrean, «gar-

dentasun falta» salatu du Udalak, «Ingurumen Sailak, isurketa kopuru horiek herrian alarma sor zezakeela jakinda, ez diolako Udalari egoeraren berri eman». Dena den, Udalak adierazi du «egoeraren jarraipena» egingo duela, eta Jaurlaritzari «exijituko» dio «ahalik eta lasterren konpontzeko».

Bide batez eskatu diote «berri ere Hernani kanpaina berezietan sartzeko». Horietan, «neurgailu finkoaz gain, neurgailu mugikorrek ere neurtzen dituzte isurketak».

Dena den, Udalak gogorazi du ez dela eskaera hori egiten dion aurreneko aldian: «eskaera hori bera egin zion Udalak duela hilabete batzuk». Kataluniako Unibertsitate Politeknikoari eskatutako aire kalitatearen azterketa independentearen emaitzen berri eman zion bilera berean izan zen hori. ||

HERNANI SANTA BARBARA ELKARTEA



Bixente eta Narro aurreko ostiralean, mus txapelketaren txapelarekin.

Bixente eta Narrorentzat, Santa Barbara elkarteko txapela

Aurreko ostiralean jokatu zuten Santa Barbara elkarteko mus txapelketaren finala, elkartean bertan. Antxo-ajan ederra egin ondoren, bertaratu ziren guztien begiradapean jokatu zuten azkeneko partidu garrantzitsua Bixente eta Narro osatutako bikoteak, Ramon eta Gabiren kontra; aurrenekoan gailendu zien, eta haiek jarri zuten txapela. Hori horrela, elkarte arteko mus txapelketan arituko dira, hurrengoan. ||

HERNANI ARRISALA ETA ATAWAFOK ELKARTEA

Baraualdiaren bukaera ospatzeko, zita

Atawafok eta Arrisala elkarteek antolatuta, Iftar edo baraualdiaren bukaera egingo dute gaur gaueko 21:00etan hasita, Urumea ikastolako patioan (Larramendi kalea 18). ||

HERNANI 41-42AN JAIOTAKOAK

Bazkaria, Errioguardan ekainaren 15ean

1941 eta 1942an jaiotakoek kinto bazkaria antolatu dute ekainaren 15ean Errioguarda jatetxean. Hain zuzen, 77 eta 78 urte ospatuko dituzte. Joan nahi dutenek, izena eman behar dute 943 55 07 31 edo 618 323 170 telefonoetan (Ixiar) ekainaren 8a baino lehen. ||

ASTIGARRAGA DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA

'From darkroom to daylight', kultur etxean

2015ean egin zuen *From darkroom to daylight* dokumentala aurkeztuko du gaur Harvey Wang New Yorkeko artistak kultur etxean. Bertan erakusten da argazkilaritza kimikotik digitalerako trantsizioa. Dokumentalaren ondoren, solasaldia izango da artistarekin. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera izango da, eta sarrera doan izango da. ||

URUMEA DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Bazkide kuota kobratuko dira ekainean

Ekainaren 15ean, larunbata, Dobera Euskara Elkarteko bazkide eta Kronikalariei bazkide kuota kobratuko zaie. Helbidetarata ez dutenak pasa daitezke bulegotik, Larramendi 11 helbidean. ||

GOIZUETA IBAIAREN GARBIKETA

Erreka garbitzeko zita, bihar

Aranon eginen duten bezala, Goizuetan ere jarri dute zita erreka garbitzeko. Goizeko 09:00etatik 12:00etara izanen da, eta herriko plaza jarri dute zita. Gaur arte eman daiteke izena: Udalean, 948 514 006, eta Amaia Kafetegian, 948 514 242. ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Hau maratoi bat da

Nork esan du tristura? EAJ-PNV izan da boto eta portzentai gehien igo den alderdi politikoa. Gure lanak eta gure proposamenek hernaniarretan barneratu direla dirudi.

EH Bilduri zoriontzeko momentua da bere emaitzematik eta baita Hernanigatik lan egiten jarraitzeko uea.

Ez desanimatu, hemen jarraituko dugu lanean eta denak hobe bizitzen saiatuko gara.

Hauteskunde hauetan babes eskaini diguzuenei, eske-

rrak eman nahi dizkizuegu eta hau maratoi bat dela pentasatu eta aurrera jarraitu behar dela. Helmuga gero eta gertuago dago.

Amaitzeko, EAJ-PNV hauteskunde hauetatik indartuago irten dela jakinarazi nahi diogu hernaniar guztiei eta edozer laguntza behar baduzue, ez dudarik egin gugana hurbiltzera.

Gora Hernani

Andoni Amonarraiz
Gómez
EAJ-PNVko bozeramailea

IRAGARKI MERKEAK

Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira Hernaniko taberna batean. C.V.a eta argazkia Bidali: bzhernani@gmail.com

Bikote gazteak 2-3 gelako pisua alokatuko luke Hernani edo inguruan. Epe luzerako. Deitu: 688 774 068

LANDANET enpresak KOMERTZIALAK behar ditu. Baldintza ezin hobeak: lan-kontratu, soldata finkoa, komisio altuak hilero eta formazioa enpresaren kontu. Bidali info@landanet.net edo deitu 943 31 86 06

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura.... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)